

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Irargarkiak

### BIDE AZPIEGITUREN ETA MUGIKORTASUNAREN SAILA

**“A-625 errepidea 359,650 kilometrotik (Amurrioko ekialdeko saihebiderearen hasiera) 354,22 kilometrorara (Bizkaiko muga) egokitzeko proiektua”-k eragindako ondasun eta eskubideen zerrenda zabaltzea eta aipatutako proiektuak ukitutako ondasun eta eskubideen titularrei dei egitea okupazioaren aurreko eta/edo behin betiko okupazioko eta, hala badagokio, balio justua ezartzeko aktak egiteko**

Foru Gobernu Kontseiluak, 2021eko azaroaren 23an egindako bilkuran, 713/2021 Erabakia onartu du. Hona hemen horren testua:

“Okupatu beharrekoa den eremua handitzea proiektu honetan: “A-625 errepidea 357,30 kilometro puntutik 354,22 kilometro puntura egokitzeko eraikuntza proiektua, zeina A-625 errepidea 359,65 kilometro puntutik 354,22 kilometro puntura egokitzeko eraikuntza proiektu aldatuaren proiektu xehatua baita”. Okupatzeko beharra adieraztea. Presako prozedura. Kreditu atxikipena.

Diputatuen Kontseiluaren abenduaren 14ko 842/2010 Erabakiaren bidez onetsi zen “A-625 errepidea 359,650 kilometro puntutik (Amurrioko ekialdeko saihebiderearen hasiera) 354,22 kilometro puntura (Bizkaiko muga) egokitzeko trazadura proiektu aldatua”k eragindako ondasun eta eskubideen behin betiko zerrenda, eta horiek okupatu eta eskuratu beharra deklaratu zen, desjabetu eta aldi batean okupatzeko, eta zortasunak ezarri, aldatu edo azkentzeko.

Ondoren, Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 9ko 345/2013 Erabakiaren bidez, behin betiko onetsi zen “A-625 errepidea 357,30 kilometro puntutik 354,22 kilometro puntura (Bizkaiko muga) egokitzeko eraikuntza proiektua, zeina A-625 errepidea 359,650 kilometro puntutik (Amurrioko ekialdeko saihebiderearen hasiera) 354,22 kilometro puntura (Bizkaiko muga) egokitzeko eraikuntza proiektu aldatuaren proiektu xehatua baita”, eta, halaber, bere horretan utzi zen proiektuak eragindako ondasunen zerrendaren behin betiko onespina (I. eranskina).

Desjabetuko diren lurren okupazioa Nahitaezko Desjabetzearen Legearen 52. artikuluan araututako presazko prozeduraz izapidetu da.

Administrazio honetako Errepide Zerbitzuak txostena eman zuen 2021eko azaroaren 3an desjabetze espedienteko 51/000 finka handitzeari buruz, eta honako hau adierazi zuen:

“A-625 errepidea 357,30 kilometro puntutik 354,22 kilometro puntura (Bizkaiko muga) egokitzeko eraikuntza proiektu aldatua (zeina A-625 errepidea 359,650 kilometro puntutik — Amurrioko ekialdeko saihebiderearen hasiera — 354,22 kilometro puntura — Bizkaiko muga — egokitzeko eraikuntza proiektu aldatuaren proiektu xehatua baita) egikaritzeko obrak gauzatu bitartean, premia berriak sortu dira gerora agertutako inguruabarren ondorioz eta, horrenbestez, kontratuaren oinarritzko proiektuan jaso ez diren irtenbide teknikoak hartu behar dira. Irtenbide tekniko horiek dakartena da kontratuaren oinarritzko aurrekontuan jaso ez diren obra unitate berriak sartzea, eta horrek aurrekontua aldatzen du.

Sektore Publikoko Kontratuaren azaroaren 8ko 9/2017 Legearen arabera, aldaketa horiek eskatzen dute proiektuaren aldaketa idatziz jasotzea eta onespina tekniko ematea.

Horren ondorioetarako, proiektu hau idatzi da: ‘Euri urak kanalizatzeko proiektua, C-5 arroa husteko, Nerbioi ibaiaren ibilguko zaintza eremuan. Proiektu honen 2. aldaketa: A-625 errepidea 357,30 kilometro puntutik 354,22 kilometro puntura (Bizkaiko muga) egokitzeko eraikuntza proiektu aldatua, zeina A-625 errepidea 359,650 kilometro puntutik (Amurrioko ekialdeko saihebiderearen hasiera)

354,22 kilometro puntura (Bizkaiko muga) egokitzeko eraikuntza proiektu aldatuaren proiektu xehatua baita. Beraz, proiektu osoaren aurrekontua, 2. aldaketa barnean hartuta, 17.315.216,57 euro da, eta esleipen baja aplikatuta (ehuneko 0,1497) eta dagokion BEZaren ehuneko 21 gehituta, guztira 20.920.044,47 euro da aurrekontua. Hortaz, 2. aldaketa horrek 497.676,75 euroko gehikuntza eragin du esleipen aurrekontuan (ehuneko 2,60).

Proiektuaren 2. aldaketa horren memorian banan-banan eta xehetasunez azaldu dira proiektua aldatzeko premia justifikatzen duten arrazoiak.

Proiektuaren 2. aldaketa horretan jasotako obren aldaketak honako hauek dira: bere garaian Amurrioko 7 poligonoko 596 lurzatian egindako desjabetzea handitzea, aldi baterako okupazio eremua handitzearen bidez; eta bide-zor bat (akueduktua) eta bide-zor bat (sarbidea) egitea.

Bestalde, aldaketa honetan egin behar diren lanen izaera eta irismena ikusita, eta proiektuaren 2. aldaketa hau idaztea eragin duten arrazoiak kontuan hartuta, ondorioztatzen da eragina dutela obraren epe orokorrean eta, beraz, beharrezkotzat jotzen da onespina ematea obrak egiteko epea bost (5) hilabetez luzatzeari, 2. aldaketan jasotako obrak egin eta proiektu osoaren obrak erabat bukatu ahal izateko.

Horiek horrela, interes publikoari kalte larririk ez eragiteko, obrak egiten jarraitu behar da atzerapenik gabe.”

Horretarako, desjabetze proiektuko 56/170 finka sortu da, Amurrioko 7 poligonoko 596 lurzatiari dagokiona; 1.595 m<sup>2</sup>-ren aldi baterako okupazioa egingo da, eta akuedukturako 624 m<sup>2</sup>-ko zortasuna eta sarbiderako 411 m<sup>2</sup>-ko bide zorra ezarriko dira.

Nahitaezko Desjabetzearen Legearen 15. artikulua eta hura garatzen duen arautegiaren 15. artikulua okupazioa handitzea eta hedatzea aurreikusten dute, eta okupatu beharreko ondasunen artean sartu daitezke ezinbestekoak direnak aurreikus daitezkeen kasuan kasuko obra handitzearako edo helburuetarako, desjabetzea dakarren helburu, obra edo zerbitzuari loturik geratzen direla iritiz.

Gainera, esan beharra dago ezen, Nahitaezko Desjabetzearen Legeak 52. artikuluan xedatutakoarekin bat etorri premiaz okupatu behar hori egikaritu beharreko proiektuen handitzei ere aplikatu behar zaienez, bidezko dela eragindako ondasun eta eskubideen desjabetzea handitzeko izapideei ekitea presako prozeduraren bidez.

Horregatik, Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko foru diputatuak hala proposatuta, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, honako hau:

#### ERABAKITZEN DUT

Lehengoa. Handitzea okupatu beharrekoa den eremua proiektu honetan: “A-625 errepidea 357,30 kilometro puntutik 354,22 kilometro puntura egokitzeko eraikuntza proiektua, zeina A-625 errepidea 359,65 kilometro puntutik 354,22 kilometro puntura egokitzeko eraikuntza proiektu aldatuaren proiektu xehatua baita.” Honi erantsitako eranskinean daude xehetasunak.

Bigarrena. Ondasun eta eskubide horiek okupatu eta eskuratzeko beharra adieraztea, aldi batez okupatu eta zortasunak ezartzeari begira.

Hirugarrena. Nahitaezko Desjabetzearen Legearen 52. artikuluan araututako presazko prozeduraz izapidetzea 51/170 finkaren desjabetzea.

Laugarrena. 25.082,55 euro esleitzea, Arabako Foru Aldundiaren 2021ko aurrekontuko 50106.5300.6000002 “Desjabetzeak” partidaren kontura (zorpekin erreferentzia: 105-4328/000.21.1.21), eragindako ondasun eta eskubideen balio justua dela-eta ordaindu beharreko kopuruei aurre egiteko.

Bosgarrena. Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzak ordain dezala eragindako finkari dagokion balio justuaren kopurua. Zenbateko hori Desjabetze Atalaren buruak balio justua ordaintzeko proposamen txostena aurkeztu eta gero ordainduko da. Ordainketa hori aipatutako lerro eta zorpekin erreferentziaren kontura egingo da, legeak ezarritako epeetan.

Administrazio bideari amaiera ematen dion erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua jar daiteke zuzenean Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salan, bi hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera. Bestela, nahi izanez gero, lehenago, berraztertzeke errekurtsua aurkez dakioke organo honi, hilabeteko epean, egintza jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.”

Horren berri ematen da interesdunak jakinaren gainean jartzeko eta dagozkion ondorioak izan ditzan, eta jakinarazten da egintza honek administrazio bideari amaiera ematen diola, eta haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri ahal izango dela Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salan, argitaratu edo, hala badagokio, jakinarazi eta hurrengo egunetik kontatzen hasita bi hilabeteko epean.

Hala ere, nahi izanez gero, lehenago berraztertzeke errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio egintza hau agindu duen erakunde berari. Horretarako, hilabete izango da aurkatutako egintza argitaratu edo, hala badagokio, jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera. Hala eginez gero, ezingo da aurkeztu administrazioarekiko auzi errekurtsorik, harik eta aurkeztutako berraztertzeke errekurtsuaz ebazpen espresa eman edo ustezko ezespena gertatu arte (Urriaren 1eko 39/2015 Legearen, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenaren, 123. eta 124. artikulua).

Halaber, dei egiten zaie honi erantsitako agirian ageri diren titularrei, Amurrioko Udaletxeko lokaletan ager daitezen, bertan jasotako egunear eta orduan, finkak okupatu ahal izateko, okupazioaren aurreko gordailua eta azkar okupatzeagatik kalte-ordainaren kopuruak aurretik eskainiz.

Kontzeptu horien zenbatekoa jaso nahi izanez gero, zeina behin betiko prezio justuaren kontura den, ondoko hauek aurkeztu beharko dira: eskubidea egiaztatzen duten tituluak, nortasun agiri nazionala eta ahalorde askietsia, legezko ordezkariak agertzen badira akten ekitaldira.

Ez badira onartu nahi eskainitako zenbatekoak edo ezin bada modu frogagarrian egiaztatu desjabetutako ondasunaren titulartasuna edo zein nortasunekin agertzen den, diru kopuru horiek Arabako Foru Aldundiko gordailu kutxan kontsignatuko dira, Nahitaezko Desjabetzapenari buruzko Legearen Arautegiak 58-1. artikuluan jasotakoarekin bat etorritik.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko azaroaren 24a

*Bide Azpiegituren zuzendaria*  
**CARLOS IBARLUCEA MARTÍNEZ**

Bide Azpiegituren eta  
Mugikortasunaren Saila  
Departamento de Infraestructuras  
Vías y Movilidad

Arabako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Alava

A-625 ERREPIDEA 357,30 KILOMETROTIK 354,22 KILOMETRORA (BIZKAIKO MUGA) EGOKITZEKO ERAIKUNTZA PROIEKTUA, ZEINA A-625 ERREPIDEA 359,65 KILOMETROTIK (AMURRIOKO EKIALDEKO SAHESBIDEAREN HASIERA) 354,22 KILOMETRORA EGOKITZEKO TRAZADURA ALDATUAREN ERAIKUNTZA PROIEKTUAREN PROIEKTU XAHATUA BAITA  
PROYECTO DE CONSTRUCCIÓN DE ACONDICIONAMIENTO DE LA CARRETERA A-625, ENTRE EL P.K. 357,30 Y EL P.K. 354,22 (LÍMITE DE PROVINCIA CON BIZKAIA), DESGLOSADO DEL DE CONSTRUCCIÓN MODIFICADO DE ACONDICIONAMIENTO DE LA CARRETERA A-625, ENTRE EL P.K. 359,65 (INICIO DE LA VARIANTE ESTE DE AMURRIO) Y EL P.K. 354,22.

FINKAREN ZK.	TITULARRAREN IZENA NOMBRE DEL PROPIETARIO	KATASTROKO DATUAK		UDALA AYUNTAMIENTO	APROBETXAMENDUA APROVECHAMIENTO	ERAGINDAKO AZALERA M <sup>2</sup>		EGUNA DÍA	ORDUA HORA
		POLIGONOA	LURSAILA			BEHIBETIKOA	B. BEHIBETIKOAN		
Nº FINCA		DATOS CATASTRALES	PARCELA			DEFINITIVA	TEMPORAL		
51/170	DEGUISA S.L.U.	7	596	AMURRIO	HIRI LUR INDUSTRIALA S. URB. INDUSTRIAL	0	1.595	17/12/21	10:00
							Uvide zortasuna/3m Servidumbre de Acueducto/3m 624 Bide zortasuna (sarbidea)/6,40m. Servidumbre de paso (acceso)/6,40m. 411		

ESP/EXPT.E. 06/217-G